

Hitzaurrea

2014ko udazkenean ezohiko bi gertakari jazo ziren Europar Batasunaren baitan. Irailaren 18an Eskoziak independentzia-erreferenduma burutu zuen Erresuma Batutik aldentzeko ala ez (*Should Scotland be an independent country?*); azaroaren 9an, berriz, Kataluniak bere etorkizun politikoari buruzko kontsulta gauzatu zuen Espainiako Erresumarekiko harremanetan (*Vol que Catalunya esdevingui un Estat? Vol que aquest Estat sigui independent?*).

Biak ala biak lotuta zeuden herri-nazio bakoitzak, hirurehun urte lehenago (1707an eta 1714an, hurrenez hurren), galdutako burujabetza berreskuratzeko prozesuan. Norberaren gobernu zentralarekin adostua izan ala ez, galderen argitasuna alde batera utzita, emaitzen irakurketak ere halakoak izan ziren: Eskozian parte-hartzea % 85 inguruan kokatu zen (% 55 aurka eta % 45 alde); Katalunian, berriz, % 33an (horietatik % 81 estatu independentearen alde). Urruti geratzen zen Mendebaldeak izan zuen Québeceko lehen esperientzia subiranista modernoa, bai geografikoki baita kronologikoki ere (1980an lehena eta 1995ean bigarren erreferendumarekin, azken horretan % 50,5 aurka eta % 49,5 aldeko emaitzarekin).

Euskal Herrian egin dira gaiari lotutako mintegiak, bai ikuspegi juridikotik (Eusko Ikaskuntza) baita politikotik ere (Gure Esku Dago); nolahi ere, ikasgai sozioekonomikoetan hankamotz genbiltzan. Horrela, 2015eko uztailaren 16an UEUK Eibarren duen egoitzan horri erantzuteko jardunaldi xume bat antolatu genuen ekonomialari talde baten ekimenez. Gure kezken artean, besteak beste, hauek zeuden: zergak (gure kontzertu ekonomikotik Europaren harmonizazio fiskaleraino), pentsioak (publiko-pribatu eta iraunkortasunaren eztabaida), energia (fosilak eta berriztagarriak), finantza-sistema (bankuen deslokalizazio-mehatxuak), moneta (euroa, libera, propioa), aberastasunaren banaketa (kapital eta lanaren errentak estatuaren dimentsioari lotuak)... Horiek jorratu genituen apurrak, jakitun gai guztien lanketa ezinezko bezain interesgarria zela (defentsa-gastuak eta armada, nazioarteko harremanen korapiloak, monarkia ala errepublika...).

Nabarmendu beharra dugu bistakoa dela, bai Eskozian bai Katalunian, azken urte hauetan hausnarketa ugari bezain aberatsa egin dela arlo sozioekonomikoari dagokionez. Horregatik, hain zuzen ere, herri honi gogoeta egiteko gonbidapen gisa aurkeztu nahi dugu gure lantaldearen ekarpen txo hau. Ez gehiago, baina ezta gutxiago ere.

Proiektua martxan jarri genuenetik munduak buelta asko eman ditu eta, testuak bi urteko atzerapenaz datozela ematen badu ere, orri hauen irakurlea azkar ohartuko da sekulako gaurkotasuna irabazi dutela bietan ala bietan. Izan ere, 2016ko ekainaren 23an Erresuma Batuak Europar Batasunetik ateratzeko bozkatu zuen erreferendumean (*Brexit* bezala ezagunago dena, % 52 alde eta % 48 aurka), Eskoziari bigarren independentzia-erreferendum baten ateak irekiz (han % 38 alde eta % 62 aurka agertu baitzen). Kataluniak bere aldetik kontsulta zena erreferendum-deialdi bihurtu du eta parte hartzeko gonbitea luzatu herritarrei 2017ko urriaren 1erako¹.

1. Liburu honen edizioa kontsultaren dataren aurretik itxi zen.

1. Euskal kontu publikoak Europar Batasunean

Baleren Bakaikoa Azurmendi

LABURPENA

Artikulu honetan Hego Euskal Herrian (HEH) politika ekonomiko autonomia egikaritzeko dauzkagun lanabesak aztertuko dira. Abiapuntu gisa, aitortu behar da gastu publikoaren aldetik autonomia osoa dagoela, baina denboraren poderioz Europar Batasuna esparru hertsia ipintzen ari zaizkie bere estatu kideei eta, ondorioz, HEHn ere murrizketak oso nabarmenak izaten ari dira. Sarrera publikoen ikuspegitik, Itun Ekonomikoaren arabera, sozietateen gaineko zerga (SZ) erabilgarria da enpresa-inbertsioak sustatzeko, baina mugak berehalaz azaltzen dira estatu-laguntzaren arloan sar baitaitezke eta, ondorioz, debekatuak, zigorrik jaso nahi ez bada. 1993tik hona EBk tratatu eta itun ugari onetsi ditu defizit eta zor publikoaren inguruan, eta arau horiek erabat urritu dituzte HEHko eskumenak aurrekontu publikoak eratzeko garaian; beraz, neurri horiek eragina izan dute HEHn, baina beti Espainiako Estatu zentraletik pasata, ez zuzenean Bruselak aginduta.

Lan hau lau zatitan banatuko dugu. Lehenengoan sarrera moduko bat egingo dugu, non aztertuko baita edozein erakunde publikok duen eskumena politika ekonomiko autonomia egikaritzeko. Halaber, politika ekonomiko hori eskari eta eskaintzaren aldetik aztertuko da.

Hurrengo atalean, zehazki, HEHn azken urteetan gauzatu diren neurriak ikusiko dira, bai eta izan dituzten ondorioak ezagutu ere. Hirugarren epigrafean Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak ezarri dituzten aurrekontu-murrizketak aztertuko dira, azken finean EBk erabakitzen baitu gure kontu publikoetan, baita gizarte-gastuei dagokienez ere, baina beti Espainiako Estatuaren galbahetatik igarota, ez zuzenean Bruselak aginduta. Azkenik, Itun Ekonomikoa alde bikotasun-hitzarmen gisa eztabaidatuko dugu eta zenbait iruzkin ere egingo ditugu Katalunia eta Eskoziak-Albaren inguruan.

Gako-hitzak: sozietateen gaineko zerga, defizit publikoa, zor publikoa, Itun Ekonomikoa, aurrekontu publikoa

1.1. SARRERA

Artikulu honen xedea aztertzea da, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eta Nafarroako Foru Autonomiak beren politika ekonomikoa gauzatzeko dituzten eskumenak, eta, bestetik, noraino baldintzatzen duten politika ekonomiko hori arautegi komunitarioak eta estatukoak. Printzipioz, bai 1979ko Autonomia Estatuak bai Nafarroako Hobekuntza Foralerako legediak ahalmen ugari jasotzen dituzte politika ekonomiko autonomoa gauzatzeko. Horretarako lanabes egokiak dira EAEko Itun Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa. Lan honetarako bi zerga-sistema horiek baliokideak dira, eskumen bertsuak jasotzen baitituzte.

Lanari ekin aurretik azpimarratu nahi dugu politika ekonomikoa bi bide diferentetik gauzatu daitekeela: eskari orokorra jomugan hartuta eta eskaintza orokorra jomugan hartuta (Bakaikoa eta Morandeira, 2012).

Eskari agregatua XX. mendeko hogeita hamarretako Depresio Handiarekin abian jarri zen jardura ekonomikoan eragite aldera eta John Maynard Keynes izan zen asmatzaile eta diseinatzailea. Keynes eta haren jarraitzaileen arabera, eskari agregatua, lehenik, kontsumoak osatzen du, zeina hiritarrek eskuratzen dituzten errenten arabekoa baita; gero, enpresarien inbertsioak, zeina interes-tasen eta negozioaren aurreikuspenen arabera finkatzen baitira; ondoren, gobernuaren gastu publikoen arabera, zeinak, hein batean bederen, diskrezionalak baitira, baina nolabaiteko automatismoarekin, eta, azkenik, esportazio eta inportazioen arteko diferentzia ere eskari agregatuaren kalkulu horretan sartuko da. Oro har, lau osagai horiek dira eskari agregatuaren aldeak.

Bestalde, eskarian moneta-politikaren bidez eragin daiteke. Moneta-politika gauzatu daiteke diru-masa aldatuta, eta, ondorioz, interes-tasa mugituko da. Modu horretan, familien eta enpresarien kontsumo-mailan eta inbertsioak egiteko gogoan eragin dezake moneta-politikako neurri horrek; ondorioz, eskari agregatuaren bi osagai garrantzitsuren gain eragingo lukete eta ekoizpen orokorra eta enplegua sustatu, baita moteldu ere, hori bada lortu nahi den helburua. Aurrekontu-funtsak desenpleguaren ondorioak arintzeko erabiltzen badira, enplegurik gabekoak sarrera duinak izatera heltzen badira, kontsumo-mailari eutsi ahalko diote; berdin gertatuko da erretiratuen pentsioak egokiak badira, baita PFEZ aurrerakor eta birbanatzaileak badaude ere. Jardura ekonomikoan eragiten baldin badugu aipatu lanabes horiekin, gai izango gara ziklo ekonomikoaren une larrietan egoera eramangarriagoa izaten, azken finean, estatu baten zereginik hoberenak une oro bere hiritarren ongizatea sustatzea edo mantentzea izan behar baitu.

Eskaintza ere erabil daiteke jardura ekonomikoan eragiteko. Eskaintzak bere eskari propioa sortzen duela dio Say-ren legeak. Laburbilduta, lortzen baldin badugu herrialde bateko ondasun eta zerbitzuak handitzea, bat-batean horien gaineko eskaria doitu da, harik eta ekoitzi diren ondasun eta zerbitzuen gehigarriak merkatutik desagertu arte. Beraz, merkatuak garbituta geratuko dira, baina langile gehiago

enplegatuta eta ekoizpen orokorra hazita. Teoria hori alboratuta egon zen eskariaren aldeko keynestar teoria nagusi zen bitartean (1945-1975), hau da, «kapitalismoaren urrezko garaian».

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, garai hartako ekonomia fenomeno berriak ezagutzen hasi zen eta orduan azaleratu ziren kritika gogorrak keynestar politiken aurka; izan ere, estatuak protagonismo larregi hartu omen zuen jarduera ekonomikoan eta hori krisialdi berriaren ziotzat hartu zuten. Horrela, liberalismo berria (neoliberalismoa) lehiatzen hasi zitzaion keynestar ereduari, pentsamendu ekonomiko menperatzaile bilakatu zen arte. Pentsamendu hori landu zutenen artean Hayek eta Friedman ditugu, baina Arthur Laffer-ek konbentzituko ditu Ronald Reagan eta haren aholkulari errepublikanoak eskaintzaren gaineko politikak abian jartzeko. Teoria horren arabera, ekoizpen-kostuak apalduko dira eta ondorioz ondasunen prezioek behera egingo dute, esportazioak areagotu eta urte horietan zegoen inflazio-garaia galgatuko zen. Erresuma Batuan Thatcher anderearekin hasiko dira eskaintza hobetzeko politikak egikaritzen, horrela itxaron baitzuten hirurogeita hamarreko inflazio kezkarria kontrolpean ipiniko zutela.

Eskaintzaren aldeko politiken helburua ekoizpen-kostuak apaltzean datza, bereziki lan-kostuak. Hori dela-eta, langileen sindikatuak ahuldu nahiko dira, alokairuan negoziazio-ahalmena urritzeko. Bide batez, enpresa publikoen pribatizazio andana abian jarriko da, jabetza pribatuak hobekiago kudeatu ei duelako. Ikerketa eta garapena sustatuko dira ekoizpena areagotzeko, eta abar.

1.2. POLITIKA EKONOMIKOA EAE-N ETA NAFARROAN

Begi-bistakoa da EAEk eta Nafarroak ez daukatela inongo eskumenik diru-politika egikaritzeko, Europako Banku Zentrala sortu aurretik eskumen hori Espainiako Bankuak baitzeukan 1978ko Konstituzioaren arabera. Behin eskumen hori Europako Banku Zentralera transferituta, logika osoarekin EAE eta Nafarroa lehen bezala geratu ziren euroa zirkulazioan ipini ostean, hau da, eskumen monetariorik gabe.

Hala ere, EAEk eta Nafarroak eskumen handiak dituzte gizarte-gastuak egikaritzeko. Gastu horiek despenplegu, gutxitutako pertsona, laneratzeko pertsona, emakume eta abarri lagundu ahal izateko dira. Halaber, hezkuntza eta etxebizitzarako politikak gauzatzeko eskumenak ere egon badaude. Aipatzekoa da EAEn intertzioa bermatzeko errenta (IBE), zeinaren bidez bizitzeko sarrera nahikorik ez dutenek diru gehigarriak eskuratuko baitituzte oinarritzko beharrianak estaltzeko. EAE da, hain zuzen, era horretako errenta duen erkidego bakarra eta 64 mila pertsona inguru profitatzen dira (Herria 2000 Eliza, 2015).

Bestalde, EAEk edo Nafarroak zor publikoa jaulki dezakete, baina bertako jarduera ekonomikoan inbertitzeko, hain zuzen, EAEko Autonomia Estatutuaren 45.2 artikulua eta EAEko Erakundearen arteko Harremanak arautzen dituen 27/1983

Legearen (Lurralde Historikoen Legea) 27.2 artikulua jasotzen duten bezala. Era horretan, lortzen diren funtsak inbertsio publikoetan erabiliko dira eta zor horrek sortuko dituen amortizazio kopuruak eta interesek ezin izango dituzte gainditu bi arau horiek ipinitako portzentajeak eta, bide batez, Estatuaren kreditu-politikarekin bat etorri beharko du jaulkipen horrek. Laburbilduta, zor publikoa jaulkitzeko legezko mugak daude eta inbertsio publiko errentagarriak egiteko erabiliko dira.

Eskaintzaren aldetik aztertuta, EAEk eta Nafarroak lanabes garrantzitsuak dauzkate erabilgarri. Esaterako, lanabes horietako bat enpresa-proiektuetarako diseinatutako inbertsio-laguntzak dira. Laguntza horien artean azpimarratuko ditugu laurogeita hamarretako Ekimen eta Garapen egitarauak; garai haietan euskal ekonomia krisialdi gogor batean murgilduta zegoen eta egitarau horiek indarrean sartu ziren Europar Batasunaren arauen barnean. Horrela, enpresa-proiektu batek baldintza batzuk betetzen bazituen, hala nola denboraldi batean enpresa lurralde horretan egotea eta gutxieneko lanpostu kopuru bat modu iraunkorrean sortzea, Eusko Jaurlaritzak inbertsio horren portzentaje bat ipin zezakeen inbertsio-proiektuan Europako legedia hautsi gabe. Bi egitarau horiek EAEko enpresa handienei zuzendurik zeuden, enpresa traktoretzat hartzen zirelako. Bidenabar, enpresa txiki eta ertainentzat ere bazeuden zenbait diru-laguntza: hobariak kredituentzat, teknologia berriak erabiltzeko, langileen formakuntzarako, eta abar. Laguntza oro euskal erakundeen aurrekontuen gain zeuden eta EBk onespena besterik ez zuen ematen.

Laguntzak zergen bidez ere bideratuko dira. Izan ere, Espainiako Estatuako autonomia-erkidego orok baino eskumen handiagoak dauzkate EAEk eta Nafarroak beren zerga-sistemetan txertatuta (Bakaikoa, 2007). Horrela daude jasota indarrean dauden Itun eta Hitzarmen Ekonomikoetan. Horrela, enpresen sozietateen gaineko zerga, bai EAEn bai Nafarroan, hitzartutako zerga bat da, EAEko lurralde bakoitzean bertako Batzar Nagusiek arautuko dute eta Legebiltzarrak Nafarroan. Halaber, arautegi hori enpresei aplikagarri izango zaie, lurralde horietan eragiketa gehienak burutzen baldin badituzte, eta arautegi hori lurralde komunetik bereiziko da. Hots, zerga-azpisistema bereziak izango dira EAEkoa eta Nafarroakoa estatuko zerga sistemaren barruan, azpiestatuak balira bezala (Zubiri, 2000).

Eskumen hori dela-eta, sozietateen gaineko zergaren oinarri zergagarriaren kalkulua, zerga-tasa eta kenkariak desberdinak dira lurralde komunean eta foru-lurraldeetan. Eskumen horren erabilerak arazo ugari sortu ditu EAerentzat, ez hainbeste Nafarroarentzat, hurbileko administrazio publikoek (mugako autonomia-erkidegoak, enpresarien elkargoak, eta abar) eta erakundeek estatu-laguntzat hartu baitute eta epaitegietara jo dute, behin baino gehiagotan, estatuan zein EBn.

Azkenean, EBko Epaitegiak bere sententzia kaleratu zuen eta ezerezean geratu ziren salaketak. Hala ere, EAEk edo Nafarroak zenbait baldintza bete behar dituzte estatu-laguntzak ez direla kontsideratzeko: 1) EAEk (kasu honetan EAEko Batzar Nagusiek) eskumena izatea zerga-arau autonomoak onesteko; 2) EAEk izatea

ekimena zerga-arauak onesteko, botere zentralak zerikusirik izan gabe ekimen horretan; eta 3) zerga-arau horren ondorioz sarrera publikoak urritzen baldin badira, estatuko funtsek ez dute konpentsatuko diru-murrizketa hori. Hiru baldintza horiek EAEn betetzen dira eta, ondorioz, Batzar Nagusiek eskumena daukate zerga-arauak emateko eta horiek legezkoak izango dira. Sententzia hori Azoreetarako eman zen eta haren aplikazioa da EA Erentzat erabili zena. Beraz, gauza bera izango litzateke Nafarroaren kasurako.

Behin EBren jarrera ezagututa, Hitzarmen Ekonomikoa EA Erentzat eta Nafarroarentzat pribilegioa zela defendatzen zutenak argudio ahulagoekin geratu ziren, baina oraindik badaude, egon ere, alderdi politikoak Hitzarmen Ekonomikoaren aurka daudenak eta bertan behera utzi nahi dutenak: Ciudadanos eta lehen UPyD.

Gastu publikoarekin lotuta ere ikerketa, garapen eta informazioan (I+G+i) gauzatutakoak ditugu. Azken urteetan zehar eskatu ostean, finean, gobernu zentralak amore eman zuen eta EAEk eskuratu zituen eskumen horiek. Ondorioz, politika autonomoa gauzatzea ahalbidetzen du I+G+i-aren arloan.

Ameriketako Estatu Batuen eta Japoniaren garapen-maila eskuratu ahal izateko helburuarekin, EBk onetsi zuen Lisboako Akordioa (2000) izenaz ezagutzen dena. Horretarako, Europako herrialdeetan I+G+i-an 2010erako BPGaren % 3 gastatu behar zen, ezaguna baita herrialde bateko krisi ekonomikoaren gorabeherak hobekiago kudeatzen direla zenbat eta sendoagoak izan gastu horiek. Eusko Jaurlaritzan irimo hasi zen xede horretara iristeko asmoarekin, baina oraindik % 2tik ez da pasatu, eta azken urteetan behera egin du. Gainera, Estatuko politikak ere ez du batere laguntzen, 2008tik murriztu besterik ez baita egin arlo horretan.

1.3. EAE ETA NAFARROAKO AURREKONTUEN MUGAK

Azpitarratu behar da EBk ez duela eskumen zuzenik bere estatu kideetako zergen gain. Estatu kideen aurrekontuen gain eskumena dauka, baina ez haien zerga-sistema aldatzeko. Arlo horretan, salbuespen gisa, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) dugu; izen ere, EBko kide bilakatu aurretik estatu kide gaiak BEZa indarrean jarri behar du; hala ere, EBk ezin du behartu estatu kide bat BEZaren zerga-tasa zehatz bat ones dezan, nahiz azken bolada honetan esku-hartze nabarmena izaten ari den zergen gain jarduteko, defizit publikoa eta zor publikoa murrizte aldera.

Baina EBko estatu kideen aurrekontuen gain eragina dauka EBk eta ez eragin xumea, batik bat euroa zirkulazioan duten estatuetan edo eurogunean. Horrela, 1993an Batasun Ekonomiko eta Monetarioaren Tratatu edo Maastrichteko Tratatu onetsi zenean, euroa indarrean ipini nahi zuen edozein herrialdek zenbait baldintza bete behar zituen euroaren eremuan sartu ahal izateko. Baldintza horiek ekonomikoak eta aurrekontu publikoen gainekoak ziren, eta estatu kideen autonomia ekonomikoa eta finantzarioa murrizten hasi ziren. Izan ere, euroaren eremuan

egoteko, administrazio publiko orotako defizit publikoak BPGaren % 3tik behera egon behar zuten eta haien zor publikoa BPGaren % 60 baino apalagoa. Bazeuden, egon ere, beste baldintza ekonomiko batzuk: inflazio-tasa, interes-tasa eta abar. Hala ere, aurreko bi parametro horiek gaur egun ere indarrean jarraitzen dute. Horrela, euroa indarrean jarri aurretik gastu publikoen murrizketei ekin zitzairen, batik bat gizarte-gastuei, hala nola pentsioak, langabetuen diru-laguntzak, osasungintzakoak, hezkuntzakoak, etxebizitzakoak eta abar. Laburbilduta, hiritar xumeak ondorio larriak pairatzen hasi ziren euroa indarrean jarri nahi zuten estatuetan. Hala ere, gizarte-ondorio kaltegarriak pairatu behar zituzten hiritarrei ez zitzairen ondo esplikatu eta are gutxiago galdetu euroa onartu ala ez.

Europar Batasuneko agintariak ohartu ziren euroa ezartzeko egutegia aurrera zihoala eta indarrean ezarri nahi zuten estatu kideek ez zituztela 1993ko Tratatuak eskatutako baldintzak betetzen. Lau urte berantago, 1997an alegia, EBk onetsi zuen Egonkortasun eta Hazkunderako Tratatu edo Amsterdameko Tratatu, non isunak aurrekusi baitziren baldintza horietara heltzen ez ziren estatu kideentzat. Baldintza horiek, gainera, zorroztu egin zituzten. Horrela, defizit publikoaren sabaia BPGaren % 3an finkatu zen, ekonomia normaltasunean zegoenerako. Zenbaki hori gainditu zitekeen, Europako Batzordearen baimenik gabe, BPGaren hazkunde negatiboak % 2 pasatzen bazuen, eta beste kasuetan, Batzordearen baimena beharko zuten, hain zuzen BPGaren hazkunde negatiboa % 0,75 eta % 2ren artean bazegoen. Bestalde, aurrekusi-tako isunak oso handiak ziren eta eragin oso negatiboak izango zituzten jadanik kaltetutako estatu kideentzat izango zirelako. Baina ez da ahaztu behar kide ororentzat ez zirela berdin aplikagarri. Izan ere, Frantziako Estatuak eta Alemaniak ez zituzten bete baldintza horiek 2004 eta 2005ean eta, hala ere, ez zuten jasan isunik. Laburbilduta, zigorrak herrialde txiroenak eta garapen apalenak izandako herrialdeek pairatuko zituzten, ez EBn agintzen dutenek.

Aurrekontuetako defizit publikoei eusteko helburua zela-eta, Espainiako Legebiltzarrak, 2001ean, Aurrekontu Egonkorreko Legea edo abenduaren 12ko 18/2001 Legea onetsi zuen. Hasiera batean, Euskal Autonomia Erkidegoa estatuko beste edozein erkidego bezala tratatzen zuen aipatu legeak, Estatu zentralaren eta EAEren arteko finantza-harremanak espresuki aipatzen ez zirelako, nahiz harreman horiek, errealki, kupo eta doikuntzen bidez gauzatzen ziren. Azkenean, Itun Ekonomikoa era malguagoan ulertu zen eta irakurketa zabalago horren bidez aurrekontu-defizita negoziatu ahal izan zen Itun Ekonomikoak dioenaren arabera, baina betiere aurrekontuen oreka helburu bihurtuta, arau komunitarioek eskatzen zuten bezala. Aipatu lege hori 2012ko apirilaren 30 arte indarrean egon zen, hain zuzen, apirilaren 27ko Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Jasangarrien Lege Organikoa edo 2/2012ko Legea onetsi arte. Nafarroak, EAEk ez bezala, ez zuen arazorik izan Hitzarmena ulertzeko moduan.

2/2012 Lege Organikoaren edukiak jasotzen dituen gaien artean azpimarragarriena da jabetzea Konstituzioaren 135. artikulua garapena dela, non

lehentasuna ematen baitzaie finantza-erakundeei zorren interesak eta printzipala kobratzeko. Hain zuzen, lege horren 14. artikulua erabateko lehentasuna ematen die ordainketa horiei Estatuaren gainontzeko gastuen aurrean. Horrela, gobernu zentralak urteko gastuak finkatzeko unean, aurrena finantza-erakundeak kontuan hartuko ditu, edozein eratako gizarte-gastuen kaltetan. Beraz, hor ikusten dugu zer-nolako menpekotasuna duen gobernu batek finantza-erakundeekiko.

Bestalde, ezin dugu ahaztu 2008an Atzeraldi Handia hasi aurretik estatu-aurrekontu gehienek superbaita zutela eta erraztasunez betetzen zituztela europar arauak, baita Estatuok ere gai honetan. Behin ekonomia atzeraldian sartu ostean, «adreilu»aren espekulazioak sabaia jo ondoren, aurrekontuen superbait horiek berehala desagertu ziren eta epe luzeko defizit kezkarriak azaldu. Krisi ekonomikoa hain zen sakona (Krugman, 2009), gobernu zentralak eta autonomia-erkidegoek finantza-funtsetara jo behar izan zuten gastu publiko gehigarriei aurre egiteko eta, ondorioz, defizit publikoek BPGaren % 10 gainditu zuten, Espainiako Estatuok barne, alarma sortuz Europako agintarien artean. Halaber, Espainiako Estatuok zor publikoak ere gora egin zuen eta bere BPGaren % 100era hurbildu.

Adibide gisa, azpimarragarria da 2012an Europako Batzordeak eskatu ziona Espainiako Estatuari defizitaren inguruan. Izan ere, onetsi zitzaion administrazio publiko ororentzat BPGaren % 6,30eko defizit publikora heltzea eta defizit hori horrela banatu zuen gobernu zentralak: administrazio zentralak % 3,5, autonomia-erkidegoek % 1,5, udalek % 0,30 eta Gizarte Segurantzak % 1. Alabaina, autonomia-erkidegoei portzentaje diferenteak ipini zitzaizkien eta EAERI bere BPGaren % 1,2 eta kopuru bera Nafarroari. Horrela, garbi geratzen da aurrekontuak eratzeko orduan zer-nolako autonomiaren galera gertatzen den, guztia EBk finkatzen baitu eta administrazio zentralak behartzen baititu autonomia-erkidegoak, horien artean EAE eta Nafarroa. Beraz, atal horretan garbi ikusten da EAE eta Nafarroaren menpekotasuna Espainiako Estatuarekiko; independenteak balira, defizit hori Bruselak markatutakoa izango bailitzateke, kasu horretan BPGaren % 6,30 izango zen eta ez % 1,2koa.

Geroztik, urtero, EBk finkatu dio Espainiako Estatuari aurrekontu orokorretan izan dezakeen defizit publikoa, eta gobernu zentralak EAERI eta Nafarroari diktatzen die noraino hel daitekeen beren defizit publikoa. Hurrengo urteetarako ere, autonomia-erkidego ororen defizit publikoak finkatu ditu gobernu zentralak; EAERentzat 2016rako bere BPGaren % 0,7 izan zen, 2017rako % 0,6, 2018rako % 0,3 eta defizitik ez du egon behar 2019an. Beraz, gardenki geratzen da gobernu zentralarekiko menpekotasuna. Izan ere, estatu independentea izanez gero, Bruselak —horrek erakusten digu zer-nolako defizit demokratikoa daukagun EBn— zuzenez diktatuko liguke zenbateko hori, Espainiatik igaro gabe: independentea izatearen abantailak. Hauxe da XXI. mendeko independentziak esan gura duena: Espainiako gobernu zentralak eskumenik ez izatea EAeko edo Nafarroako erabaki politikoetan, ez gizarte-gaietan ez ekonomikoetan.

Aipatu bezala, Europar Batasuneko agintariak ohartuta zeuden zailtasun handiak zeudela 1997ko Aurrekontu Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna betetzeko. Horregatik, 2012ko martxoaren 2an, EBko estatuburu eta gobernaburuek, Britainia Handikoak eta Txekiar Errepublikakoak kenduta, Ekonomia eta Diru Batasunean Egonkortasun, Koordinazio eta Gobernantzako Tratatuaren onetsi zuten. Testu horrek jasotzen du aurrekontuen egonkortasuna babestu behar dela edozein egoeraren aurretik eurogunean. Laburbilduta, estatu kideen aurrekontuak zuhurki bete behar direla azpimarratuko da, inor ez dadin desbideratu.

Hitzarmen hori hiru ardatzetan oinarritzen da. Lehenengoa aurrekontu-hitzarmen bat da euroguneko estatuek onetsi zutena aurrekontu-orekara heltzeko edo superabita erdiesteko; testu hori sinatu zuten euroa indarrean duten estatuek. EBk onetsitako araudia zenez, estatu kideek ere gauza bera egin behar zuten eta Espainiako Estatuak jadanik etxeko lanak eginak zeuzkan, horretarako Konstituzioaren 135. artikulua erreformatu baitzuten, ezkutuan izan bazen ere, 2011ko irailean; erreforma horretan onartu zen egitura-defizitaren beheko muga BPGaren % 0,5 izango zela, nahiz zenbait egoeratan zifra horiek alda zitezkeela aurreikusi. Azkenik, Hitzarmenak jasotzen zuen, edukia ez bazen betetzen, isun ekonomikoak ezarriko zitzaizkiela desbideratutako estatu kideei.

Doktrina *ordoliberal*aren arabera, euroguneko estatuen arteko hitzarmen horrek aurrekontuak arrastoan jarri nahi ditu baldintza ekonomiko egokiak sortzeko eta, ondorioz, haien ekonomiak hazkunde-bidean sartu ahal izateko, aurrekontuen balantzeak hobetzeko eta ikusgarri gera dadin europar ekonomiaren sendotasuna nazioarteko diru-merkatu lehiakorretan: austeritate hazkorraren predikua da. Hau da, oraindik, garai honetako doktrina ekonomiko nagusia da, baina ikusten ari gara oker daudela agintari ekonomiko gehienak. Hori da agintarien *desideratuma*, nahiz errealitateak beste zerbait erakusten duen (Blyth, 2014).

Aipatu hitzarmenaren bigarren ardatzean, EB osatzen duten estatu kideen politika ekonomiko diferentek konbergitzeko neurriak aurreikusten dira; batik bat zor publikoaren jaulkipenak koordinatu nahi dira eta ezarri den egutegia betetzea ziurtatu, behar diren erreformak burutuz politika ekonomikoaren arloan. Halaber, euroguneko gobernantza indartu nahi da. Laburbilduta, hitzarmen horrek lanabes egokia izan behar du EBk garapen ekonomiko jasangarria ahalbidetze eta sinesgarritasuna eskuratze aldera diru-merkatuetan, inbertitzaileen konfiantza ziurtatzeko.

Europar eta estatu kideen arautegi hauek guztiek estatu-aurrekontuen filosofia erabat aldatu zuten, kontuan izanda oraindik eduki keynestar ugari zituztela. Izan ere, berriro, aurrekontu klasikoaren filosofiara itzultzen dira, non aurrekontu publikoaren zurruntasuna izango baita joera nagusia. Filosofia horren arabera, aurrekontua beharrezkoa da, baina tamaina handikoa izatera heltzen baldin bada, jarduera ekonomikoaren kaltetarako izango da, are gehiago, gastu publikoaren zati bat zor

publikoa jaulkita burutzen bada, ekonomia errealari kalte egingo baitio funtsak murriztuko direlako, funts horiek sektore pribatu ekoizkorrari kenduko zaizkiolako.

Alabaina, aurrekontu-arau horiek indarrean jarri zirela jadanik joan dira zenbait urte eta errealtateak erakusten digu EBn diziplinatu direla aurrekontuak, defizit publikoak nabarmenki murriztu baitira, baina euroguneko ekonomia apenas ez den sartu hazkunde-bidetik, AEBn edo Britainia Handian ez bezala, bi herrialde horietan keynestar politika ekonomikoak aplikatu baitira emaitza baikorragoekin. Izan ere, EBn alderantziz gertatzen ari da, nahiz krisialdian luze egon ostean, hazkunde oso epelaren zertzeladak ikusten ari gara, beste ondorio kezkarri batzuk alboratu gabe: lan-kalitate eskasa, diferentzia ekonomiko nabarmenak, gazteen arteko langabezia, migrazio-mugimendu berriak eta abar.

Horri guztiari erantsi behar zaio alemaniarren jauntxokeria EBko herrialdeekiko, batik bat euroguneko estatuekiko, austeritate-politikak ezarri baitizkie beren aurrekontuetan. Politika horren ondorioz esku-hartze publikoa murriztu egiten da sektore pribatuko ekonomia motelduta dagoenean. Horren ondorioz, sarrera publikoak gutxitu egiten dira eta aurrekontuaren gain egin behar diren ordainketek handiak izaten jarraitzen dutenez (zor publiko handiegia, langabezia ia kronikoa, populazioaren zahartzea, azpiegituren berritzea, I+G+i-ko gastuen premia, eta abar), hazkundera sustatzeko dirurik apenas geratzen den. Hori dela-eta, estatuek zorpetzen jarraitu beharko dute; adibidez, Espainiako Estatuaren zor publikoa bere BPGaren % 100era igo da eta Greziarena, oraindik handiagoa, % 173ra edo gehiagora, eta abar. Hazkunde sendo eta zuhurrik lortzen ez bada, periferiako estatu askok ezin izango diete aurre egin zor erraldoi horiei (Ubide, 2015).

Euroguneko estatu ugari zorpetuta daude eta, ondorioz, Europako Batzordearen esku-hartzea areagotu da estatu horien aurrekontuetan. Esku-hartze hori ez du bakarrik gauzatzen Europako Batzordeak, baizik eta Nazioarteko Diru Funtsa eta Europako Banku Zentrala ere eginkizun horretan jarri baitira. Izan ere, hiru erakunde horiek «troika» delako hori sortu dute eta haren betebeharra estatu kideen aurrekontuak kontrolatzea izango da. Ondorioz, aurrekontu-autonomiaren joko-zelaiak urritu egingo dira. Gainera, luze baino lehen, europar funts berri bat eratu nahi da, eta funts horiek eskuratu nahi badira, estatu eskatzaileak EBk onetsitako aurrekontu-baldintzak bete beharko ditu, bestela ez zaio laguntzarik helduko.

Laburbilduta, EBren ekonomia ez bada sartzan hazkunde ekonomikorako bide sendo batetik, eta horretarako aurrekontu malguagoak erabiltzeaz gain, inbertsio publiko erraldioen beharra izango da, baita Europako Inbertsio Bankuaren laguntza ere, Asiako (Japonia, Txina, Taiwan, Hego Korea...) edo AEBko lehiakideekin dauden diferentzia ekonomikoak handitu nahi ez badira bederen. Gastu publiko horiek, bestalde, gure inguruko hezkuntza-sistema hobetzeko ere izan beharko lukete, jadanik nahiko zaharkitua eta utzia baitago sektore hori (PISaren azken datuak ikusi), bertan egiten diren gastuak ez-produktibo gisa ulertzen direlako, ez gizarte-inbertsio gisa, edo lehentasunezkoak ez direlako gure gobernuentzat.

1.4. HITZARMEN EKONOMIKOAREN HURRENGO URRATSAK: HAUSNARKETA

Espainiako Estatuarekiko eten adostua sustatzeko, Nafarroarekin bat egiteko eta Europar Batasunean arazorik ez izateko zenbait urrats ematen hasi beharko litzateke, estatu independentera edo konfederatura heltzea xede bada. Estatu independente izateak esan nahi du EBren baitan dauden edozein estatu kidek dituen eskumen berberak izatea, salbuespen-egoeran edo *opt-out* egoeran ez daudenen antzera, hala nola Britainia Handia (oraindik), Suedia edo Danimarka bezala, alde batera utzita Ekialdeko kide berriak.

Aipatu xede horiek kontuan hartuta, lehen urratsa Hitzarmen Ekonomikoan zergak arautzeko, ezartzeko eta gordetzeko onesten diren eskumenak eskuz aldatu beharko lirateke eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien ordezkari Eusko Legebiltzarrak izan eskumen horiek. Horrela, foru-arauen deskoordinazioak saihestuko lirateke eta irakurketa bera egingo litzateke lurralde bakoitzean. Gainera, gardenki geratuko litzateke edozein zergak arau-lege maila izango lukeela eta, beraz, helegitea jartzeko zailtasunak egingo lirateke edozein izanda ere kaltetuta sentituko den autonomia-erkidegoa edo enpresen elkarteak. Azkenik, zerga berriak onesteko eskumena ere Eusko Legebiltzarrak izan behar du eta horren etekinak, zuzenean, ogasun autonomikoentzat izango lirateke, nahiz kudeaketa-kostuak konpentsatu zerga-biltzaileei, hau da, foru-aldundiei.

Itundutako zerga guztiak euskal arautegiaren barruan egongo lirateke, zeharkako zergak izan ezik: BEZa, zerga bereziak eta aseguruaren ordainsarien gaineko zergak. Zerga horientzat arautegi komuna egokia da, are gehiago EBn merkatu bateratua osatu nahi bada. Gainontzeko zergei, bai zuzenei, baita zeharkako txikiei ere, Eusko Legebiltzarrak onetsitako arautegia aplikatuko litzazieke.

EAEko Biltzar Nagusien ordezkari Euskal Legebiltzarrak zerga-arauak diktatzeko ahalmena izateak errazago egingo luke Nafarroako zerga-sistemarekin bat egitea. Modu horretan, bi legebiltzarrak parean egongo lirateke eta ez Nafarroako Legebiltzarrak hiru foru-lurraldeetako batzar nagusiekin, maila diferenteetako foru-erakundeak baitira eta horrek ulertze makurrak ekar litzake, beti saihestu behar direnak edozein negoziaketatan. Beraz, bi autonomia-erkidegoen konfederakundea errazago lortuko litzateke, lau foru-erakunde gehi EAEko erakunde izan ordez, pareko bi legebiltzar balira.

Ogasunaren papera, orain bezala, hiru foru-aldundiek egikarrituko lukete. Eginkizun hori gauzatzeko foru-aldundiek egitura egokia dute eta deszentralizazioa bermatuko lukete: arau berak, baina hiru administrazio publiko deszentralizatu zerga-bilketa egiteko.

Hitzarmen Ekonomikoko zergen etekinak, zerga propioen etekinak eta zor publikoa jaulkita erdiesten diren funtsak izango dira Hego Euskal Herriko ogasun

konfederatuak erdietsiko dituen sarrera publiko nagusiak. Zor publikoaren jaulkipena Eusko Jaurlaritzak erabakiko du EBren arauak kontuan hartuta eta hasiera batean bidezkoa litzateke jaulkipena Espainiako Gobernuarekin koordinatzea.

Funts horiek izango dira sarrera publiko oro eta estatu zentralak oraindik bere gain dituen eskumenak finantzatzeko kupoak ordainduko zaio administrazio zentralari. Gero, behin administrazio zentralarekiko urteroko zorra kitatu ostean, kupoak alegia, gainontzeko funtsak EAEko eta Nafarroako ogasunek kudeatuko dituzte. Hortik esleituko dira funtsak lurralde bakoitzeko udal eta foru-aldundiaren aurrekontuentzat, erakunde bakoitzari dagozkion eskumenen arabera.

Bestalde, behin-behingo, Hitzarmen Ekonomikoa egikaritzeko administrazio zentrala eta HEHko ogasunak koordinatzeko eta garatzeko batzorde pareko bat eratu beharko litzateke, zeinean erabakiak aho batez hartuko bailirateke. Batzorde horren eskumenen artean egongo lirateke: zerga berriak sortzea, zergen arautegi berriak edo aldaketak egitea, eta kupoak eta doikuntzak zenbatestea, baita zor publikoaz arduratzea ere. Halaber, barne-ogasunak koordinatzeko eta garatzeko Euskal Finantzen Batzordea eratuko litzateke; batzorde hori HEHko bi ogasun zentralen ordezkariak (EAE eta Nafarroakoak), hiru foru-ogasunen ordezkariak eta EUDELen ordezkariak osatuko lukete. Beraz, batzorde eraginkorra izango litzateke euskal diru publikoak bideratuko lituzkeena, hain zuzen.

1.5. HITZARMEN EKONOMIKOAREN ALDEBIKOTASUNAREN AUZIA

Hitzarmen Ekonomikoa, beste behin, auzitan dago. Pribilegioa dela diote Espainiako Estatuak zentralizatu eta modu bakarrekoa gura dutenek; bertan behera geratu behar duen pribilegioa, Espainiako hiritar guztiek berdin-berdinak izan behar baitute eta berdintasun horren aurka omen doa Hitzarmena. Aldebikotasuna legea balitz, hau da, berdinen artean eraturako legea balitz Hitzarmen Ekonomikoa, beldurrez ez ginateke egongo euskal hiritarrok. Baina Estatuak du eskumena eta EAERI eta Nafarroari lagatako zerga-araua da, hemengo erakundeek kudea dezaten. Beraz, urrats garrantzitsua da benetako aldebikotasun-mailara heltzea, menpekotasunetik jauzi egitea, independenteak izan nahi badugu.

Bidenabar, azpimarratu behar da gobernu zentralari ordaintzen diogun kupoak solidarioa dela alde aunitzetik: Estatuak eraturako Funts Solidarioari % 6,24ko ekarpena egiten zaio; Estatuak gordetako eskumenak finantzatzeko portzentaje bera ekartzen diogu; EBri Espainiako Estatuak ekarritakoaren % 6,24 ordaintzen diogu, baina kasu honetan Hego Euskal Herriak EBtik guk jarritako diru kopurua baino gutxiago eskuratzen du, ez, ordea, Espainiako Estatuak; Espainiako Estatuak zor publikoarengatik ordaindu beharreko interes erraldioen % 6,24 gauzatzen dugu; azkenik, kupoaren portzentajea gainbaloratuta dago, gure BPGa eta populazio erlatiboa % 6,24tik behera baitaude (% 6,14 eta 4,63, hurrenez hurren).

Hemendik, EAeko harremanak Estatuarekiko modu honetako alde bikotasunean oinarritu nahiak ez du etorkizunik. Estatu bateko azpiestatua, kasuan EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoa, eta estatua bera ezin daitezke pearn egon, baizik haien gaintik dago estatua. Horregatik auzitan jartzen digute Hitzarmen edo Itun Ekonomikoa.

Hitzarmen Ekonomikoak berdinen arteko adostasun-itxura dauka, bi herrialdeetako ordezkariak osatutako Batzorde Mistoan gauzatzen delako. Edozein izanda ere desberdintasuna, Batzorde Misto horretan argitzen dira diferentziak eta erdietsitako testua Estatuak onesten du; prozedura berdina da Nafarroarentzat edo EAerentzat.

Horrela, Batzorde Misto hori dela-eta, itxuraz bederen, alde bikotasuna ematen da. Alta, hori gezurtatzeko nahikoa dugu 2002ra itzultzea. Izan ere, EAeko aurreko Hitzarmen Ekonomikoa, 1981ekoa, 2001eko abenduaren 31n amaitzen zen eta berri bat negoziatu behar zen. Negoziazio horrek ez zuen fruiturik eman eta gobernu zentralak indarrean zegoen testua luzatu egin zuen, Jaurlaritza eta hiru euskal aldundien gaintik pasata.

Jokaera horrekin gobernu zentralak gardenki utzi gura zuen nork duen agintea. Hortik egiaztatzea Nafarroak edo EAek emaniko eskumenak bakarrik dituztela eta, beraz, edozein unetan bertan behera gera daitezkeela. Hala ere, autonomia-erkidego orok ez dituzte eskumen berdinak, EAek eta Nafarroak foru-sistema deritzon sistema gorde baitute.

Ibarretxeren garaiko estatutuak ere horrelako zerbait proposatu zuen, baina badakigu nolako muturrekoa eman zioten Espainiako Legebiltzarrean. Horrek, eztabaidatzen ere ez zion utzi. Hor ikusten da estatuko alderdi nagusien borondatea alde bikotasuna ulertzeko modua.

Gaur egun ere Jaurlaritza saiatzen ari da Espainiako gobernuburuarekin solasten. Baina erantzuna jasoko du euskal alderdien botoak behar dituztenean, une batean beharrezkoak direnean, bestela ez dago alde bikotasunik. Horrek adierazten du zer-nolako jarrera duen «parekideak». Beraz, alde bikotasunak, oraindik bederen, jai du eta ez da batere errealista, Kataluniaren aferan ikusten den moduan, Espainiak bakarra eta unibertsala izaten jarraitzen baitu.

1.6. ZENBAIT IRADOKIZUN

a) Europar Batasuneko Zerga Sistemaren Harmonizazioa

Aspaldiko asmoa da EBko Zerga Sistemaren konbergitzeko beharra. Izan ere, merkatu baturik ezin daiteke eratu estatu kide bakoitzak zerga diferentek baldin baditu. Beraz, lehen urrats bezala ondasun eta zerbitzuen gaineko zerga amankomuna sortu behar zen eta norabide horretan balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) indarrean

jarri zen laurogeiko hamarkadaren hasieran. Horrela, adibidez, Espainiako Estatuak, kide bilakatu zenean, BEZa indarrean ipini zuen, baina estatu kide bakoitzak bere BEZ propioa zuen, batik bat zerga-tasari dagokionez. Garai haietatik hona, zerga horren kontzeptua hurbilduz joan da, hala ere estatuen arteko aldeak oso nabariak dira oraindik ere eta ez dirudi, epe ertainean bederen, BEZ kontzeptua eta haren zerga-tasa hurbilduko direnik, are gutxiago berdindu. Antzeko zerbait gertatzen da zerga bereziki (ZB), horiek ere oraindik urruti baitaude konbergentziatik.

Harmonizatu beharko litzatekeen bigarren zerga sozietateen gaineko zerga (SZ) da edo konpainien mozkinen gainekoa izan behar lukeen zerga. SZa inbertsio errealak erakartzeko erabiltzen dute estatu kideek eta, ondorioz, bai zerga bera eta, zer esanik ez, zerga-tasa oso ezberdinak dira estatu bakoitzean. Horrez gain, ordaindu behar den kuota likidoari ere kenkari ugari aplika dakioke eta ordainketa kopurua apalagoa bihurtu.

SZaren zerga-tasan, EBko estatu kide zaharrenen artean % 12,5etik, Irlandako kasua, Alemaniako % 35erainoko tartea dago. Diferentzia horien ondorioz, Irlandak erakarri zituen Ipar Amerikako multinazional ugarien inbertsioak, zeinek esplikatu baitute, hein handi batean, «Irlandaren miraria». Halaber, kenkarien ondorioz, ordaindutako kopurua mozkin ororen % 1-2ra hurbilduko zen. Haatik, ez da harriztekoa, zerga horri dagokionez, Irlanda paradisu fiskal modukoa izatea.

Beste kasu aipagarria Luxenburgoko da. Luxenburgoko zerga-sistema EBren barruan dagoen paradisu fiskala izateaz gain, bertako gobernuak 300 bat multinazionalekin negoziatu zuen haien mozkinen % 1 inguru ordaintze aldera. Horrela, multinazional horien negoziatzeengatik ez zuten ezer eskuratuko balioa sortutako herrialdeek; horrelako joerarekin, berriz ere, gardenki geratu da nola funtzionatzen duen EBko kideen arteko elkartasunak.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergak (PFEZ) izan beharko luke harmonizatu beharko litzatekeen hirugarren zerga. Zerga horren subjektuak sarrera apal eta erdi-mailakoak dituzten pertsona fisikoak dira, eta haien aitortpena atxikita dago jarduera gauzatzen duten herrialdeetan; azken finean, haiek ordaindutako PFEZaren bidez lortuko da sarrera publikoaren zati handi bat, garrantzitsuena ez bada. Bien bitartean, sarrera handienak dituzten pertsona fisikoak, aberatsak alegia, beren errentak desbideratzeko lanabes ugari dituzte, ezagunenak SICAVak direlarik. Finantza-lanabes horien bidez, berorien jabeek saihesten dute ogasun publikoari dagokien zerga kopurua ordaintzea. Lanabes berezi horiek eratzen ere Luxenburgoko herrialde trebea da eta paradisu fiskal gisa funtzionatzen du.

Azkenik, finantza-inbertsioen eta gordailuen etekinak dauzkagu, etekin horiek EBko jatorrizko herrialdean gauzatu ordez beste estatu kide batean gauzatzen direnean, sortzen dituzten zerga-disfuntzioak ditugu. Hau da, adibidez, euskal hiritar batek Herbehereetako inbertsio-funts batean partaidetza eskuratzen badu, kasu hauetan, euskal ogasunek ez dute inbertsio horren berri jasotzen eta etekin horiek

ez dute zergarik ahalbidetuko. Arlo honetan interes ekonomiko sakonak daude eta estatu kideak ez daude amore emateko prest, batik bat inbertsio horien hartzaile diren estatu kideak, hala nola Britania Handia, Herbehereak edo Luxenburgo. Hala ere, gizarte-presioa dela-eta, zenbait urrats ematen ari dira azken urteetan jatorrizko ogasun publikoek etekin horien informazioa jaso dezaten, baina oraindik luze joko du gardenki etekin horiek azaleratu arte.

Ikusten denez, EBko kide bakoitzak bere zerga-sistema dauka eta haien eskumena da, EBk zerga-sistema propiorik ez baitu. Izan ere, EBren aurrekontuaren sarrerak muga-zerga transferituak eta, laburbilduta, estatu kideen ekarpenak dira. Horregatik, zerga-sistema horien arteko gutxieneko konbergentziara heltzeko, zeharkako lanabesak erabiltzen ari da Europako Batzordea, hala ere, orain arte ez dira emaitza ikusgarrietara iritsi.

Hori guztia dela-eta, Kataluniak zein Eskoziak, estatu independenteak izan nahi badute, baita EBko kide bilakatu ere, derrigorrez, beren zerga-sistema sortu beharko dute. Zerga-sistema horiek, gainontzeko kideak bezala, behartuta daude BEZa ezartzera bai eta zerga bereziak ere. Eta logikoa denez, PFEZa eta SZa ere indarrean ipini beharko dituzte, Espainiako Estatuko eta Britainia Handiko zerga-sistemetatik eten ostean, gaur egun estatu bi horien eskumenak baitira.

b) Katalunia eta Itun Ekonomikoa

Espainiako Estatuaren Konstituzioa eztabaidatu zenean, Kataluniako ordezkartza politikoak, Pujol eta Rocaren eskutik, aukera izan zuen Itun Ekonomikoa onesteko. Baina ez zuten sistema hori eskatu, zerga-sistema batek sortzen dituelako zenbait eragozpen, batik bat zergak ezartzeak hiritarren aurrean sortzen dituen nahigabeak daudelako. Itun Ekonomikoa izan ordez, egokiagoa ikusi zuten Kataluniako aurrekontuak Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoaren bidez (AEFLO) finantzatu ahal izatea. Lege hori, bere osotasunean, estatuko autonomia-erkidego guztientzat, EAE eta Nafarroa salbu, aplikagarria da eta, beraz, Katalunian ere lege hori aplikatzen hasi zen laurogeiko hamarkadaren hasieran.

AEFLO eta Itun Ekonomikoaren arteko alderik nabarmenetako bat hau da: «arriskua» zeinek bereganatzen duen. Itun Ekonomikoaren arabera, arriskua aldebakarrekoa da eta euskal zerga-erakundeek behar den adinako diru publikorik ez badute eskuratzen, erantzukizuna euskal erakunde publikoena izango da eta Estatuak ez du esku hartuko. Aldiz, AEFLOren arabera, autonomia-erkidego batek nahiko dirurik ez badu gutxieneko zerbitzu publikoak finantzatzeko, Estatuko aurrekontuek aurreikusita izango dute dagokion dirutza emateko premia duen erkidegoari, oinarrizko zerbitzu-maila ziurtatu dadin.

Bestalde, are gehiago Konstituzioa eztabaidatu zenean, zerga-biltzea oso txarto ikusita zegoen gure artean. Denboraren poderioz, zergak gurea den zerbait bezala

ikusten hasi gara, baina oraindik Europako herrialde normaletako onespren-mailara iristeko asko falta zaigu. Haatik, ezaguna egiten zaigu Pujolek zioena: zergak estatuak bil ditzala, guk, kataluniarrok, gastua bakarrik nahi dugu burutu.

Eskoziak ere ez dauka bere zerga-sistema. Izan ere, Eskoziaren sarrera publiko nagusia Londresko gobernuak transferitzen dion dirutza da, zerbitzu publikoak eta inbertsio publikoak egikaritzeko. Horrez gain, berea kontsideratzen du Ipar Itsasoko petrolioaren gaineko zergaren zati bat. Eta azkenaldian, gobernu eskoziarrak bere hiritarren PFEZaren gaineko portzentaje bat ezar dezake, baina aurrekotasunerako zirrikitu estua geratzen zaio. Beraz, Itun Ekonomikotik urruti dagoela esan genezake Eskoziako zerga-sistema, Londresekiko menpekotasuna agerikoa den bitartean.

Haatik, Itun Ekonomiko indarrean dugun herrialdeok errazago daukagu estatu independentera jauzia ematea, atal honi dagokionez, bederen, deskonexiorako zailtasun gutxi egongo litzatekeelako. Horregatik ari dira orain kataluniarrak zerga-legea prestatzen independentzia aitortu bezain laster beren zerga-sistema indarrean ipintzeko. Euskal erakundeen kasuan, deskonexio hori errazagoa izango litzateke zergen gaineko eragiketa oro hemengo foru-ogasunen esku baitaude, kasu gehienetan arautzeko ahalmena barne.

Gizarte Segurantzaren afera kanpo geratuko litzateke, bere finantzabideak dituelako, nahiz Estatuko aurrekontuetatik egunetik egunera bere defizitaren kopuru handiagoa estali behar izan. Beraz, deskonexiorako lege egokia prestatu beharko litzateke, onuradunentzat lege-hutsunerik ez dadin egon.

7. ONDORIOAK

EBko erakundeek ez dute eskumenik estatu kideen zerga-sistemen gain. Hori dela-eta, estatu kide bakoitzak bere zerga-egitura gordeko du eta estatu horien artean zerga-lehia sortuko da subjektu pasiboak bereganatze aldera; ondorioz, inbertitzaileak alde batetik bestera higituko dira, presio fiskal apalena dagoen lekuan kokatzeko. Inbertsioak erabakitzeko orduan, sozietateen gaineko zergen arteko aldeak erabakigarriak izan daitezke; BEZen arteko diferentziak ere erabakigarriak dira hein batean bederen.

Bien bitartean, ez da gauza bera gertatzen estatu kideen aurrekontuekin. Horrela, nahiz zeharka izan, EBk bere kideen aurrekontuetan eragiten du. Izan ere, Batasun Ekonomiko eta Monetarioaren Trataturia edo Maastrichteko Trataturia 1993an onetsi ostean, euroan parte hartzen duten estatuak beren aurrekontu publiko orokorretan (administrazio zentrala, erregioa edo autonomia-erkidegoa, tokikoa eta Gizarte Segurantza) arau zorrotzak bete behar izan zituzten. Horregatik, orain ere, aurrekontu orokor horien defizit publikoak ezin dezake gainditu BPGaren % 3 eta zor publikoak BPGaren % 60.

1993an onartutako irizpide ekonomiko horiek ez zituzten betetzen eta EBko agintariak gogor jarri ziren, eta, ondorioz, 1997an, Egonkortasun eta Hazkunderako Paktua (PEC) onetsi zuten. Paktu horretan zenbait isun aurreikusten ziren, gainera oso zuhurrak eta gogorrak, aurrekontuei eskatutako baldintzak ez baziren betetzen. Isun horiek estatu kide guztientzat berdinak ziren, baina EBko estatu kide nagusiek, Alemaniak eta Frantziako Estatuak, huts egin zuten eta isunak saihestu, itxuraz berdinen arteko araua bertan behera utzita. Bien bitartean, estatu kide ahulenek isunen mehatxua oraindik jasaten dute: Portugal, Espainiako Estatua, Grezia, Irlanda...

Espainiako Erresumak ere bere aurrekontu-arauak finkatu zituen 2001ean Aurrekontu Egonkorraren Legea onetsi zuenean administrazio publiko guztientzat aplikagarri izan zedin. Lege horren arabera, aurrekontu guztiek orekatuta edo superabitarekin egon behar zuten. Ekonomia hazi zen bitartean ez zen zaila izan superabit publikoa erdiestea, baina behin Atzeraldi Handia hasi zenean, 2008an, aurrekontuen soberakin horiek irensten hasi ziren eta defizit publiko adierazgarriak azaltzen, zenbakiak bi digituetara hurbildu baitziren, eta, ondorioz, zor publikoak ere etengabe gora egin du.

Alemaniak eta haren inguruko estatuek presionatuta, 2011n Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformatu zuten, hiritarrak kontsultatu gabe, nahiz eragin negatibo zuzena izan haien bizimoduetan. Artikulu horren garapena Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Jasangarriaren Lege Organikoaren edo 2/2012 Legearen bidez burutu zuten. Lege Organiko horrek EAEko eta Nafarroako aurrekontuen murrizketa larria ekarri zuen; adibidez, 2012an EAEko aurrekontuen defizit publikoak ezin zezakeen gaudituz BPGaren % 1,2. Hurrengo urteetan defizit hori murriztuz joango da, baina ez dira izango euskal agintari politikoak neurri horiek hartuko dituztenak, baizik gobernu zentralaren agindua bete besterik ez dute egingo.

Hau guztiau dela-eta, EAEko eta Nafarroako aurrekontu-autonomia murriztu egin da EBren eraginez. Horrela, EBk bere arauak betearazten dizkie euroguneko estatu kideei eta horiek beren periferiako administrazio publikoei, EAEko eta Nafarroako administrazio publikoak barne, nahiz bi erkidego horiek Itun Ekonomikoa indarrean eduki.

Itun Ekonomikoa alde biko araua dela azpimarratzen digute, baina hori horrela ezin daiteke izan, Estatua eta autonomia-erkidego bat parean jartzen baitira, eta ez da hori kasua. Gainera, nahikoa frogatzen daude non gardenki geratzen baita Estatuko gobernuak nahi duen bezala neurriak hartzen dituela itun horren inguruan. Parekideen arteko harremana baino gehiago, harreman hierarkizatua da, non gobernu zentralak emandako zerga-eskumetzat hartzen baitu.

Kataluniak eta Eskozia-Albak beren zerga-sistema sortu beharko dute EBn integratu aurretik. Hitzarmen Ekonomikorik ez dute eta, beraz, errazago izango lukete sistema hori izango balute, deskonexioa errazago egingo bailukete Espainiako Estatutik edo Britainia Handitik irteteko.

8. BIBLIOGRAFIA

- Bakaikoa Azurmendi, Baleren (1992): «Maastrichteko Gailurra: 1993an zer gertatuko ote?» , *Larrun*, **12**.
- , (2007): *Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna eta Nafarroako Ekonomia Hitzarmena*, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo.
- Bakaikoa, Baleren eta Morandeira, Jon (2012): «El cooperativismo vasco y políticas públicas», *Ekonomiaz*, **79/I**.
- Blyth, Mark (2014): *Austeridad: historia de una idea peligrosa*, Crítica, Bartzelona.
- Herria 2000 Eliza (2015): «Comisión de Investigación del fraude en las prestaciones sociales en el Ayuntamiento de Vitoria», *Herria 2000 Eliza*, **253**.
- Friedman, Milton eta Rose (1992): *Libertad de elegir: hacia un nuevo liberalismo*, Grijalbo, Madril.
- Krugman, Paul (2009): *El retorno de la economía de la depresión y la crisis actual*, Crítica, Bartzelona.
- Ubide, Ángel (2015): «El problema Alemán», *El País*, 2015eko martxoaren 8a.
- Vence, Xavier (2014): *Crisis y fracaso de la Unión Europea neoliberal*, Eneida, Madril.
- Zubiri, Ignacio (2000): *El sistema del Concierto Económico en el contexto de la Unión Europea*, Círculo de Empresarios, Bilbo.

